

Pakita Agirresarobe
Zarautz, Gipuzkoa (1910)

Aurkibidea

Biografia

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Zintak

ZAR-113

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aldaz Odriozola, Maider
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Aldaz Odriozola, Maider

Pasarteak

1. Igandetan zinera

- **Erref:** ZAR-113/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:01:54. **Bukatu:** 00:02:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Lehen igandetan zinera joaten ziren, baina ez ezkondu baino lehenago.

Transkripzioa

- Eta leno hola igandetan ta kanpoa ertetzen al ziñazten?
- Igandian? Igandian juten giñan zazpi perro txiki baliyo zitun pelikulak Zarautzen, eta juten giñan jaitan zinea. Baiña ezkondu baiño leno ez. Orduan ez giñakagun diruikan ta, ez giñan juten zinea. Geo, ezkondu ta mutil txikiyak hazi zianian, pues, ordun juten giñan. Zazpi perro txiki baliyo zun pelikulako entradak; Otamendinea juten giñan, eta beste kafia ta esne pixkat hartzen gendun han; eta ordun, zinea. Zinetikan erten, eta itxea, baiña behiñe're ez giñan jun gabekoa, behiñe behiñe're ez. Beti boste t'erditakoa, itxea goizo etortzen zan ta.

2. Aristokrazia Zarautzen

- **Erref:** ZAR-113/003
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Zarautz asko aldatu da: lehen aristokrata eta jende aberats asko zegoen. Baina haiek jauregiak saldu zituztenean, etxeak egin zituzten haien ordeztu.

Transkripzioa

- Zure ustez, Zarautz asko aldatu al da lenotikan oraiñea?
- Bai. Leno aristokraziya genun asko. Leno jende aberatsa, eta titulo haundiko jendia: dukiak, markesak eta horrelakyak giñan. Geo hoyek itxiak eta jardiak saldu, ta in dia itxe asko zea hoyetan, terreno hoyetan: por ejemplo, dukesa Mirandak'e, zean, oain dukesa Mirandan terrenotan dabez.
- (laguna 1) Hayek hayek burua altxako baldin balue, ze esango ote lueke?
- (Pakita) Negar, negar ingo lueke.
- (laguna 1) Borgeto bat eta.
- (Pakita) Borgetonekuak eta ze palaziyuak eta.
- (laguna 1) Ene, ene, ene, ene, ene.
- (Pakita) Oain danak itxiak dabe inda.
- (laguna 1) "Qué horror"!
- (Pakita) Konde Kantillana, aber, konde Kantillanak'e hainbeste seme-alaba eta halako palaziyuak eta danak danak saldu in zitun, eta dana itxiak inda dabez hor.

3. Festak lehen eta orain

- **Erref:** ZAR-113/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lehen festetan dantza egiten zuten. Ohiturak galdu baino, irabazi egin dira. Beren garaian, herriko banda zegoen, eta denak joaten ziren hara, dantza egitera. Orain, ordea, beste herrietara joaten dira gazteak dantza egitera.</p>

Transkripzioa

- (Elkarrizketatzailea) Lehen zer-nolako gauzak egiten zenituzten festetan?
- (Pakita) Festetan? Pues, ze ingo gendun? Dantzan, ttunttuna jotzen zuen ta dantzan iten gendun.
- (laguna 1) Sano-sano.
- (Pakita) Bai, hoixe, besuak zabalduta.
- (elkarrizketatzailea) Ze ohitura zeuden leno oain galdu dianak?
- (Pakita) Galdu, oain, oain galdu ez; oain irabazi in dia ohiturak, dantzak oain... Leno ez zeon zeaikan, ene itxiturako zea dantzak eta hoyek, eta erbestea jun, ta holakoikan. Han herriyan iten zan, ta ttunttuna jotzen plazan, ta musika... guk banda earra giñakaun geure denboran. Aiuntamientuan banda, bueno, sesenta, hirurogeitaka zea zian ta. Ordun banda ederra eta zenbat dantza, eta gaiñez ordun herriko jende dan-dana jutun giñan, bai. Ni akordatzen naizena da mutil txikiyakin, Banko Gipuzkoanoko leyuan gaiñian jarri tente mutil txikiya, eta gu eoten giñan zeai beira, musikai ta beira.
- (laguna 1) Hantxe danak, danak dantzan.
- (Pakita) Baiña kabitu eziñik, kabitu eziñik, hainbeste jende gau batez!

- (laguna 1) Saka, ta saka, ta saka, ta saka, ta segi.
- (Pakita) Bai, ta gaur, ordia, dana Hernanira. Han daola Uxalume, han daola ez dakit ze, eta gazte guztiya ta gustu guztiya hoyeta dijoa. Itxitako zeara... Ederki. Geyo!

4. Baserriko bizimodua eta ohiturak

- **Erref:** ZAR-113/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

12 urterekin hasi zen amari laguntzen. Baserriari, kaleari eta maiorazkoari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Zu zenbat urtekin hasi ziñan amai laguntzen hola?
- Amai laguntzen? Ba, hamabi urte, komuniyua zeatu gendunian, akabatu gendunian, komuniyua in gendunian, orduan hasi giñan lanian. Ta geo plaza juten giñan egunero tratua saltzea, eta astuakin amai laguntzen juten nintzan tratua saltzea. Ta geo eguardiyan, berriz billa astuakin ta karruakin juten nitzan aman billa.
- Zergaitik usten duzu lengo jendia, baserriko jendia, etxetara etorri dala?
- Ba, lengo baserriko legiak oso diferentia zian: ordun maiorazkuantzat izaten zan batzak eta lanak. Baiña gaur beste postura batea gurasuak iten due, semiai ematen diyoe itxasoa batzuk, taillerrea lanea... eta hoyek, ta geo ordun, itxiako gelditzen da, itxiako seme maiorazkua, ezkondu ta han martxan, zergatik danantzat ez daolako seme danantzat baserriyan irabaziya danantzako.

5. Azoka eta euskara

- **Erref:** ZAR-113/011
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:14:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Azoka aldatu egin da: izan ere, orain baratzea gehiago lantzen da lehen baino. Lehen gehienbat abereak izaten ziren baserrietan. Txikitan eskolan, euskaraz hitz egiteagatik eraztuna jartzen zieten zigor gisa.</p>

Transkripzioa

- Lehendik oraindaiño asko aldatu al da azokaren negozio edo lan hori?

- Bueno, gaur batzan lan asko iten da. Leno basarriyan iten zan dana ganaua, eta artua, ta babarruan, ta horrela. Baiña gaur basarriyan berdura're asko iten da plaza ekartzeko; leno ez, baiña oain bai. Horregatikan Zarauzko plazako asko irabazi du herriko, basarriko berdurakin.

- Zure ustez, euskarak ba al du etorkizunik?

Hombre! Beti! Zergatik gu euskaldunak nola gean, pues, nahi deu euskeraz zeatzia, hitz eitia ta gure artian, alkarren artian beti hori. Gu txikiyak giñanian, erderaz ez giñakiun, euskeraz dana. Eta guk nahi gendun eskolan pixkat ikasteko erderaz, erderaz'e bai, erderaz ikastia nahi gendun. Ta ordun jartzen zan anillo bat jarri, euskeraz, erderaz ikasteatikan e? Eta deskuidatuta hitz eiten bagendun euskeraz, esaten ziguen: "anillua! Galdu in dezu puntua ta".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com